

Javier Marías idazlearen lotsagabekeria

• JUAN SAN MARTIN •

[EUSKALTZAIN OSOA]

Madrilgo *El País* egunkariak astero argitaratzen duen *El semanal* (655. alea) 2000. urteko maiatzaren 14-20-koan, Javier Marías jaunak argitaratu duen *Doiches* deritzan artikulua txunditurik utzi nau bertan azaltzen dituen edukaziorik gabeko astakeriak irakurrita.

Artikulu horren hasieran, Institut d'Estudis Catalans, Real Academia Galega eta Euskaltzaindikoak: «*pésimos lingüistas y no tener ni noción del funcionamiento de las lenguas y hablas*» dioenez. Nonbait ez daki, holako gai batean besteoi iritziak ematera sartu baino lehen, hizkuntzalari izateaz gainera beste hiruror hizkuntzak ere ezagutu beharrezkoak direla. Lehenik zergatik ez ditu begiratu besteon arautegiak zertan diren? Euskaltzaindiarena, adibidez, 1920. urtean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako diputazioek onartua zen. Eta hor daude bere egitekoak zertan oinarritzen diren.

Ramón Menéndez Pidal eta Antonio Tovarrek ez zuten holakorik esango, zeren beti izan baitzituzten Euskaltzaindikoekin harreman estu bezain onak. Gainera, A. Tovar zenari hamaika aldiz entzun nion, munduko sei hizkuntzalari hobereenen artean jartzekoa zela gure Koldo Mitxelena zena. Eta, J. Marías-ek gutxien dakiena da, Euskaltzaindikoaren artean badirela zenbait Mitxelenaren ikasle izanak eta Unibertsitatean irakasle direnak.

Ez daki aipatu dudana 1920ko arautegi hura Espainiako Ministerio de Educación y Ciencias delakoak onartu zuenik ere. Bada, ikus eta irakur beza *Decreto 573/1976 de 26 de febrero*, Euskaltzaindia bere arautegiaz onartu zueneko eta horri errege Juan Carlos jaunak egin zion onespenezko sarrerakoan honako hitz hauekin argi eta garbi zioena: «*la Academia viene laborando ininterrumpi-*

damente en los fines para los que fue creada, fomentando la unidad de una lengua que hablan muchos españoles y que es un elemento importante de la cultura y del acervo nacional. Por ello, nada mejor para la tutela e investigación de la lengua vasca que el reconocimiento por el Estado de la labor de esta Academia que Su Majestad el Rey Carlos I quiere hacer patente, de acuerdo con las memorables palabras de su agregio abuelo.

Ez dut gogoko inor lotsagabekiro epaitzea, baina une honetan Javier Marías delakoak ez du besterik merezi. Eta lotsagabe horren *Doiches* artikulua erantzun beharrezkoa iruditzen zait. Zeren hizkuntzalari izateaz gainera euskara eta hemen bertako historia ere ezagutu beharrezkoak baitira.

Akademiek ez dutela normarik eman behar? Baina, Real Academia de la Len-

gua-k ere ez ote du bada hori egiten? Azken mendeotan ortografiaz eman dituen arauak ikusi besterik ez dugu. Bestela, hemeretzigarren mendera arte edozein hitzetan y erabiltzetik ez ote ziren bada i-ra pasatu? Halako adibideak maiztasunez aurki ditzakegu.

Azkoitia eta Barakaldo k-rekin erabili ala ez erabakitzea Euskaltzaindiari dagokio. Gure ikerketan adierazgarri hori ditugu *Onomasticon Vasconiae* saileko hainbeste liburu, eta herrien eskariz eman diren agiriak *Euskera* agerkarian azalduz, beti lekukotasunekin.

Euskal Herriko errepideetan jarri behar diren errotuloak guk gure aburuz jarri beharrezkoak ditugu, zeren J. Marías-en artikulua azkenaldian agertzen diren hitzak, Alemanian edo Italian, bertako hizkuntzetan daude. Legez hala behar delako, bai Espainiako Estatuaren aldetik eta bereziki Euskal Herriko Autonomia erkidegoetatik. Beraz, ez du eskubiderik, «*aducir como argumento la*

manera en que los vecinos de una población la llamen, es otro rasgo de asombrosa ignorancia» esateko. Ez ote daki Espainiako hizkuntzarik zaharrena euskara dela? Ez ote du ezagutzen Euskaltzaindiaren arautegia? Ez nonbait.

Nik, eibartar bezala esan nezake gure herriaren izena, hiri sortzeaz Espainiako erregeak *Villanueva de San Andrés de Heybar* jarri arren, bertako semeok beti Eibar soilik erabili dugula, hiriaren sorrera baino lehenagotik ere hala zenez. Kanpoko erdaldunek ordea, jakin behar lukete beraien agiri zaharretan: *Heybar, Heivar, Ehibar, Eybar* eta abar idatzi izan dela. Gaur bertan oraindik, Madriletik *Éibar* bezala idazten dute eta bertako gaztelazale batzuek ere bai. Beraz, bertako ezagutu gabe eta euskararik jakin gabe ezinezkoa da iritzi egokia eskaintzea. Hori da Marías lelo horri ere gertatzen zaiona.

Esaten dituen astakeria horiek aski ez direlarik gaineratzen du: «*ignorantes académicos al servicio no de la ciencia, sino de los políticos. De sus políticos locales, para mayor oprobio!*». Alderantziz, hori berori esan diezaiokegu berari bai beste askori.

Gure ekintza ez dela politikoa jakiteko, berriz diot, Euskaltzaindiaren arautegia irakurri besterik ez duela. Adibide bat jartzeko, nik neuk Eusko Jaurlaritzako HAAE delakoari aditzera eman diot autoei ikuspena eman behar zaien bulegoetan, *revisión* hitzaren itzulpenez *ikus-kaketa* gaizki dagoela, izatekotan ere *ikusket*a behar duela, baina alferrik.

Euskaltzaindiak esana du *Orereta* ez dela zuzena, *Erreterria* baizik. Eta bertako zinegotzi guziek onartu zuten, HB-koek izan ezik. Hauek berean jarraitzen dute setati, errepideetako errotuloei *Renteria* edo *Erreterria* borrotatu eta gainean *Orereta* jarri.

Bestalde, Jaurlaritzako kontseilari batek aspaldi izendatu zuen Txingudi erreserba, Bidasoa behar zuten lekuan. Ikus Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkaria (1998, XLIII, 221-227. orrialdeetan).

Gure erakunde hau bertako politikarien esanetara balego ez zen horrelakorik gertatuko.

hirusta...

XABIER ALDAY

Subersiboak

Batuetan segundo eskas batzuk dira, bestetuetan orduak; nire buruak gorputzeko presondegitik ihes egiten du. Eskuok idazten jarrai dezaket, ahoak jakiak irensten, begiak orriatetik paseatuko dira, zure aurrean izango nauzu, baina ez naiz egongo. Eta ez nauzu faltan botako. Ez naiz itzuleraz ohartuko eta ametsekin gertatzen zaidan moduan, ahaztu egingo zait non ibili



naizen, eta norekin. Eguneroko bizitzan egitera ausartuko ez nintzena burutu, eta norbere bizitzan ezinbestekoak izan ez arren, burututakoan pertsona beteagoak edo zoriontsuagoak sentiarazten gaituzten garaipen ttipi horiek erdietsita itzul ninteke hutsa diruditen horietan.

Tarteka ordea nire buruak ez nau guztiz utzi nahi. Bere izatea, eta orobat, nirea aldarrikatu nahi ditu, eta zalantza ahotsaz galdekatzen nau. Estu hartzen nau. Besteen epaia jasotzea bezain larria da norbere buruarenaren aurrean onik ez irteteko beldur izatea. Jendetzaren artean bakarrik sentitzea bezala. Bere konpainiarekin nire bizitza janzen duten pertsonak ikuspegi ezberdin batetik agertzen dira, arrotzagoak, anbiguoak, maitakorak.

Neure baitara itzulitakoan, inork nire ausentzia antzeman duen igartzen ahalegintzen naiz. Lasai hartzen dut arnasa, konturatu direnak ere tipo distraitua naizela pentsatuko dutelakoan, baina eurak ere ihesbide propialik eduki behar dutela ohartzen naiz, eta orduan, disimuluan, zelatatu egiten ditut, itzultzen direnean, oso-osorik itzultzen diren jakiteko.

Azken finean nahigabea ihes egiten dugun una horiek besterik ez dizkiegu eskaintzen geure buruei egungo bizitza modernoan. Gainontzekoa egunez lanera eta gaez ohera lotzen gaituen grabitate-indarra da.

...hemeroteka

DEIA

**PPren
bakardadea**

EDITORIALA

Badirudi Euskadin, lehen Irlandan bezala, bake prozesuan aurrera egiteko bitartekorik onena negoziatzea den ustea

nagusitzen ari dela. Uneotan, PP da hitz egiteko edozein aukera guttiz baztertzen duen bakarra, eta bide polizialaren alde jarraitzen du, nahiz eta hainbat hamaralditan frogatuta gertatu den ez dela metodo eraginkorra arazoa konpontzeko. Euskal Herriko gainerako indar politikoek badakite gatazka

politikoa dela eta, beraz, erantzun politikoa eman behar zaiola, eta, horregatik, jendaurrean azaldu dituzte konponbidea lortzeko beren proposamenak. Bakoitzak bere planteamenduak ditu, eta askotan guztiz desberdinak dira, baina abiapuntuko jarrerak markatu nahi dituzte, gainerakoei beren bal-

dintzak jakinarazi; batzuk maximalistak dira, eta bestetzuk moderatuak hasierako eskakizunetan. Baketze prozesua atakatik ateratzeko biderik onena denez gero denon artean eztabaidatu behar delako proposamen horiek EAJk, EAK, EHk eta PS-EEK egin dituzte, hala nola Ibarretxe lehendakariak

eta, bere izenean, EAeko sozialisten presidentek, Txiki Benegasek. Sozialisten eskaintzak dira zehaztu diren azkenak, eta interesik handiena piztu dute, nola beren zehaztasun eta malgutasunagatik, hala martxoaren 12aren ondoren PPren strategiari jarraitzeko ildo haustea direlako. Postulatu estre-

mistenak dituztenak ere prest agertzen dira gainerakoei entzuteko, ikuspegi alderatzeko, elkarrizketen bide zailari ekiteko. PPK soilik jarraitzen du mugitu gabe, Konstituzioaren eta Estatutuaren ukiezintasunari tinko atxikia, bere indarraren arrazoian babestuta, bere arrazoi indarrean baino areago.